

# Boluntarioa izan nahi al duzu?



Etengabe ari dira boluntarioak eskatzen: egoera ekonomiko txarrean daudenei laguntzeko, ekologiaren alde lan egiteko, arazo pertsonalak dituztenei egoteko....

Jarduera honetan, boluntarioei buruz arituko gara. Bertan, ariketa hauek egin ditzakezu:

- Bideoz elkarrizketa bat ikusi ondoren, adierazi esaldi batzuk zuzenak ala okerrak diren .
- Gaiaren lotutako testu-zati bat osatu, aditz laguntzaileak eta sinonimoak idatziz.

## Ikusi bideoa

Miren Gurrutxagaren bideoa ikusi ostean, esan ondorengo esaldiak ZUZENAK edo OKERRAK diren. OKERRA dela uste baduzu, saiatu zure erantzuna arrazoitzen.



	Zuzen	Oker
Boluntario izateko, denbora edukitzea da behar dugun bakarra.		
Gazteek zerbait berria ezagutzeko erabakitzen dute boluntario izatea.		
Gazteak oso egonkorak dira.		
Gaur egun, boluntario izatea erabakitzen duen pertsona batek 10-15 urteko ibilbidea egiten du.		
Lehenengo jendea oraingoa baino hobea zen.		
Segun zer ikusten dugun komunikabideetan, horren arabera jokatzen dugu.		
Orain, errefuxiatuen gaia dago modan, horrek mugiarazten du jendea.		
Inork ez du beti alor berean laguntzen, modak beti aldatzen dira eta jendea ere bai.		
Boluntario izan nahi duenak pentsatu gabe izena ematea du onena, Gurrutxagaren ustez.		
Auzoko edo herriko elkartean lagunduko digute boluntario izaten edo, bestela, Gizalden lagunduko digute.		

## Aditzak eta sinonimoak

“Boluntarioa zara? Zein da zure kausa?” testuko zati bat daukazu hemen. Testuan hutsuneak dituzu; bertan **aditz laguntzaileak** idatzi behar dituzu eta ilunago dauden hitzei **sinonimoa** bilatu.

Boluntario izan nahi duenak horretarako denbora izan behar \_\_\_\_\_ . “Erretiratuak edo etxekoandreak \_\_\_\_\_ boluntario egonkorrenak. Euren bizitza antolatuta dute eta horrek asko laguntzen die”, adierazi \_\_\_\_\_ Gurrutxagak. Horiek helduak dira, baina gazteak ere **hurbiltzen** \_\_\_\_\_ dira boluntariotzara: “Esperientzia berriak izan nahi \_\_\_\_\_ , ikasi edo zerbait berria probatu. Hala ere, hauen egonkortasuna konplexuagoa \_\_\_\_\_ ”.

Garai batean, hamar edo hamabost urtez laguntzen \_\_\_\_\_ boluntarioak elkarre berean. Gaur egun, ordea, egoera oso bestelakoa \_\_\_\_\_ . “Ez da hobeak edo okerragoak garelako. Orain arlo profesionalean edo pertsonalean ez \_\_\_\_\_ egonkortasunik. Lehen errazagoa \_\_\_\_\_ hori lortzea”, azaldu digu elkarrizketatuak. Beste adin tarteetakoek ere laguntzen \_\_\_\_\_ , baina **haurrak** \_\_\_\_\_ baditugu, lan arloan arrakasta lortzen ari bagara... Horrek gure lehentasunak zehazten \_\_\_\_\_ eta, **agian** \_\_\_\_\_, laguntza emateko tarte **topatzea** \_\_\_\_\_ zailagoa izaten da.

“Proiektuetan parte hartzeko **moduak** \_\_\_\_\_ aldatu egin dira: nork esango zuen ziberaktibistak (edozein gairen inguruan, sarearen bidez protesta egin edo eskaerak zabaltzen dutenak dira) egongo zirela? Solidariora den jendea lehen bazegoen eta orain ere badago”, aitortu \_\_\_\_\_ Gizaldeko arduradunak.

## Erantzunak

	Zuzen	Oker
Boluntario izateko, denbora edukitzea da behar dugun bakarra.		✓
Gazteek zerbait berria ezagutzeko erabakitzen dute boluntario izatea.	✓	
Gazteak oso egonkorak dira.		✓
Gaur egun, boluntario izatea erabakitzen duen pertsona batek 10-15 urteko ibilbidea egiten du.		✓
Lehenengo jendea oraingoa baino hobea zen.		✓
Segun zer ikusten dugun komunikabideetan, horren arabera jokatzeko dugu.	✓	
Orain, errefuxiatuen gaia dago modan, horrek mugiarazten du jendea.	✓	✓
Inork ez du beti alor berean laguntzen, modak beti aldatzen dira eta jendea ere bai.		✓
Boluntario izan nahi duenak pentsatu gabe izena ematea du onena, Gurrutxagaren ustez.		✓
Auzoko edo herriko elkarteetan lagunduko digute boluntario izaten edo, bestela, Gizalden lagunduko digute.	✓	

### Aditza eta sinonimoak

Boluntario izan nahi duenak horretarako denbora izan behar (du). "Erretiratuak edo etxeoandreak (dira) boluntario egonkorrenak. Euren bizitza antolatuta dute eta horrek asko laguntzen die", adierazi (digu) Gurrutxagak. Horiek helduak dira, baina gazteak ere hurbiltzen (gerturatzen, inguratzen, hurreratzen) dira boluntariotzara: "Esperientzia berriak izan nahi (dituzte), ikasi edo zerbait berria probatu. Hala ere, hauen egonkortasuna konplexuagoa (da)".

Garai batean, hamar edo hamabost urtez laguntzen (zuen) boluntarioak elkarte berean. Gaur egun, ordea, egoera oso bestelakoa (da). "Ez da hobeak edo okerragoak garelako. Orain arlo profesionalean edo pertsonalean ez (dugu, dago) egonkortasunik. Lehen errazagoa (zen) hori lortzea", azaldu digu elkarrizketatuak. Beste adin tarteetakoek ere laguntzen (dute), baina haurrak (umeak) baditugu, lan arloan arrakasta lortzen ari bagara... Horrek gure lehentasunak zehazten (ditu) eta, agian, (beharbada, apika) laguntza emateko tarte topatzea (aurkitzea) zailagoa izaten da.

"Proiektuetan parte hartzeko moduak (erak) aldatu egin dira: nor esango zuen ziberaktibistak (edozein gairen inguruan, sarearen bidez protesta egin edo eskaerak zabaltzen dutenak dira) egongo zirela? Solidarioa den jendea lehen bazegoen eta orain ere badago", aitortu (digu) Gizaldeko arduradunak.

### Transkripzioa

#### 1. Boluntarioak zein izaten dira?

Boluntario izateko bi gauza behar izaten dira: boluntario izan nahi izatea eta denbora izatea. Orduan, denbora izaten dutenak eta gehienak, nik uste dut boluntario egonkorrenak direla normalean prejubilatutako (aldez aurretik erretiratu direnak), jubilatutako (erretiratuak), ba bueno, etxeoandreak... Nik uste dut horiek direla egonkorrenak, eta nik uste dut elkarrekin preziatuenak horiek izaten dira (direla), zeren azkenean, beraiek nolabait beraien bizitza antolatuta dute eta egonkortasun hori bermatu dezakete era errazagoan. Gero, jende gaztea ere asko da, nik uste dut azkenean bizitzan esperientziak jasotzeko, ikasteko, gauza ezberdinak probatzeko, nik uste dut jende gaztea ere asko dela boluntariotzara hurbiltzen dena. Gertatzen dena da nik uste dut hauen egonkortasuna pixka bat konplikatua izaten dela, ez?

#### 2. Zein bilakaera izan du boluntariotzak?

Garai batean, esaten zen boluntariotzaren hasten zen pertsona bat (batek) 10-15 urte irauteko zituela elkarte batean, ez? Nik uste dut gaur egun, gaur egun, hori konplikatua da. Nik uste dut ez lehenengoak hobeak zirelako edo okerragoak zirelako. Azkenean, nik uste dut gaur egun egonkortasuna ez daukagula ez mundu afektiboan, ez laboralean, ez? Orduan, nik uste konplikatua dela hor egonkortasuna bermatzea.

#### 3. Orain zertan lagundu nahi du jendeak? Modak daude?

Nik uste dut azkenean, ikusten dugunaren arabera mugitzen garelako, ez? Orain de repente (bat-batean) errefuxiatuen krisia dago eta esaten duzu: "Jo ba zerbait egin behar da!" Eta orduan, ba bai, mugitzen da. Hurrengoan beste zerbait ikusten baldin badugu... Azkenean ikusten ditugun arazoaren aurrean erantzuna emango dugu, orduan, bai momentu honetan nik uste dut errefuxiatuen historia dela igual gehien mugiarazten duena jendea. Nik uste dut krisialdia hasi zenean, eta hor jende pila bat langabezia gelditu zenean, hor jangelak eta elikagaien bankuak jarri zirenean, bai, bai, pixka bat nik uste dut denok horrela funtzionatzen dugula, ez? Hombrea, denok... Beti egongo da jendea argi dituen bere lehentasunak, bere kausak, bere borroak... Ez? Orduan, horiek jarraituko dute baina bestela, bai.

#### 4. Zer esango zenioke boluntario izan nahi duenari?

Nik uste dut boluntario izateko kuriositate minimo bat baldin badauka, pausoa emateko. Bilatzeko bere kausa edo bere espazioa, zertara bideratu nahi dituen bere esfortzu edo bere indarrak eta ez pentsatzeko. Bueno, neurtzeko zein denbora eskaini dezakeen ez? Pixka bat hori pentsatu zer arlotan, zenbat denbora, eta inguruan elkarrekin bat, bere auzoan, bere herrian elkarrekin bat baldin badauka hurbiltzeko eta galdetzeko. Eta bestela guk prozesu horretan lagundu diezaikegu.